

BERTOLT BRECHT'EN KANTAK ETA  
POEMAK

«Otsalar»ek euskeratuak

ONDORE MARKATUAK

Bonbardeoak guregana eldu baino anitz lehenago  
bizi ezinezkoak ziren gure  
uriak. Kaiño-zuloak  
ezin zituen eraman  
zikiñak.

Asmo gabeko crasoetan erori baino anitz lehenago,  
oraindik zutik zeuden uriak igaro ondorean,  
gure andrek ziren  
alargun, eta gure semeek ume-urtz.

Markatu zirenak hillobietara eror baino anitz  
[lehenago,  
adiskideak falta genituen. Kareak jan  
zizkigunak ez ziren ia aurpegiak.

HERBESTERATURIK LEHEN URTEEN  
GORDE-LEKUA (1)

Madarien eta Sund'en artean zauden etxea, errazu:  
«Egia zeatza da» ezaupide zaharra  
igesik joan zanak, denboretan edukia zure ormen  
[artean,  
irauntze ahal du bonbardeoen ondoreau?

---

(1) Brecht'ek orman idatzia jarri zuen ezaupi-  
dea: *Die Wahrheit ist Konkret* (= Egia zeatza da).

Ene sortherria, zelan arkitu nuen?  
Makiña bat bonbardeo ondorean  
etxera itzuli naiz.

Ta nun da ene etxea? Khez ikusten diran mendi  
handi haietan.

Erretzen dagoana,  
hura da.

Ene sortherria, zelan hartu ninduan?  
Ene aurretik dijoaz bonbardeoak. Amaika hilketak  
nere etorrera adierazten dizute. Su-oldeak  
aurreztu dute semea.

### ZER UKAN ZUEN SOLDADUAREN ANDREAK?

Zer ukan zuen soldaduaren andreak  
Praga'ko uri zaharretik?  
Zapata pare, agur bat eta  
takoidun zapatak ukan zituen Praga'tik.  
Praga'tik ukan zuen.

Zer ukan zuen soldaduaren andreak  
Vístula igarotzen dan Varsovia'tik?  
Kolare ederdun liñuzko atorra  
bat ukan zuen Varsovia'tik.  
Varsovia'tik ukan zuen.

Zer ukan zuen soldaduaren andreak  
Sund'ek bustitzen duen Oslo'tik?  
Larruzko lepokoa ukan zuen Oslo'tik,  
erregalu ederra Oslo'tik ukana.  
Oslo'tik ukan zuen.

Zer ukan zuen soldaduaren andreak  
Rotterdam'go uri aberatsetik?  
Sonbreru eder bat ukan zuen  
ta zein ederki ematen duen holandresen  
sonbreruak!

Holanda'tik ukan zuen.

Zer ukan zuen soldaduaren andreak  
Bruselas'ko uri ederretik?  
Andre guziak beti amets egin duten  
arreun-xerra ukan zuen Bruselas'dik.  
Bruselas'dik ukan zuen.

Zer ukan zuen soldaduaren andreak  
Paris'tik, argiaren uritik?  
Sedazko soineku bat ukan zuen  
—hura adiskideen enbidia!— Paris'tik.  
Paris'tik ukan zuen.

Zer ukan zuen soldaduaren andreak  
Libia urrutiko Tripoli'tik?  
Kate bat eta kuttunak,  
kobrezko katea ukan zuen Libia'tik.  
Libia'tik ukan zuen.

Zer ukan zuen soldaduaren andreak  
Rusia'tik, bukaera gabeko lurralde hartatik?  
Alargunaren buruko-beltza ukan zuen  
hilletetara joateko, Rusia'tik.  
Rusia'tik ukan zuen.

(«Schweik Munduko bigarren Gerratean»dik, 1942).

## GALILEO'REN DOTRINA ETA ERITZIA

Oro-ahaltzuak erran zuenean «Egin bedi»,  
eguzkiari erran zion, bere aginduz,  
kriselu bat eraman zezala munduaren jiran  
neskametxo bat orbita inguruko bezala.  
Zeren, beren nahia zen haur bakotxa  
jira zezala bera baiño hobearen inguruan.  
Eta ariñak asi ziren astunagoen inguruan bueltaka,  
atzekoek aurrekoen ondorean, zelan lurrean ala  
[zeruan,  
eta aita santuaren bueltan jiratzten dira kardenalak.  
Kardenalen bueltan jiratzuz apezpikoak.  
Apezpikoen bueltan jiratzuz sekretarioak.  
Sekretarioen bueltan jiratzuz errejidoreak.  
Errejidoreen bueltan jiratzuz arotzak.  
Arotzen bueltan jiratzuz zerbitzariak.  
Zerbitzarien bueltan jiratzuz zakurrak, oilloak eta  
[eskaleak.

(«Galileo'ren bizitza»tik, 1938).